

ALEGRÍA-DULANTZI

— ARABA / ÁLAVA —

Dulantzi Arabako hiriburutik 13 kilometrora dago, Aguraingo kuadrillaren barruan, eta bertan dago izen bereko udalaren egoitza. Gasteiztik irten eta honela iritsi daiteke errepidez Dulantzira: N-104 errepidea hartu Donostiarantz, eta, Ilarratza igaro eta gero, hartu A-3110 biderako lehen irteera. Handik kilometro batzuetara agertuko zaigu herria, hiru sarbiderekin: lehenengoa, Dulantziko industrialdera doa; bigarrena, Gasteizbide kalean bukatzen da, mendi magaleko erdigune historikoan; eta, azkena, hiribilduaren ekialdetik sartzen da. N-I errepidetik ere hel daiteke Dulantzira, Gasteizerako bidean Dallorako 371 irteera hartuta. Handik, A-3140 bidean zehar, Dulantzira helduko gara, ekialdetik, burdinbideak zeharkatzen duen mendixka pasatuta.

Antzinako herrixka zegoen eremuan dago gaur egungo herria ere. Ordutik datorkio izena. Rejako agirian ere *Dullanzi* izena dago jasota; bi golde-burdina ordaindu omen zizkionen Hiraszaezako barrutian. Jeronimo Aznar gotzainaren gutunean ere, *Dulanzi* aipatzen da. Inguruko herrietako bizilagunek harako joera zeukan: Aiara, Henayo eta Egiletaoek, esaterako. Horri esker, Alfonso XI.a erregeak hiribildu-forua eman zion 1337. urtean, baita astelehenero azoka *salbu eta seguru* egiteko baimena ere. Muino baten magalean hasi zen hiribildua, Alegria ibaiak inguratuta, estrategikoki kokatuta, San Adriandik Gasteizerako pasabidea menderatuz, baita Donejakue Bidea ere, bai Ganboatik Bizkairantz eta Gipuzkoarantz zohoana, bai hegorantz, Errioxa alderantz, zohoana, Arabako Mendialdean zehar. Muino horren gainean jarri ziren plaza, eliza eta Lazkaotarren Dorrea. Gaur egun desagertuta dago dorrea; tenpluari itsatsia, Lautadako gotorleku nagusietakoa izan zen. Ibairekin paralelo, bi kale eraiki ziren: Gotorlekukoa, goiko aldean, eta Kale Nagusia, apur bat beherago. Berant Erdi Aroko alde zaharra osatzen dute gaur egun.

Hiribilduak zenbait baseliza izan zituen inguruau, handik hurbil zeuden hilerrietako parroquia izan zirenak: Aiarako Andre Maria eta Henayoko San Migel, besteaik beste. Nabarmentzekoa da baiatar klaratarren komentua ere. 1581. urtean fundatu

La villa de Alegría-Dulantzi se encuentra situada a 13 km de la capital alavesa, dentro de la Cuadrilla de Salvatierra, como sede del ayuntamiento que lleva su nombre. Desde Vitoria el acceso se realiza por la N-104 hacia San Sebastián, tomando la salida tras pasar Ilarratza por la A-3110, que después de unos pocos kilómetros conduce al pueblo por tres desvíos: el primero entra en Alegría por la zona industrial; el segundo acaba en la calle Gasteizbide, en la base de la ladera y del casco histórico; y el último entra por la zona este de la villa. Desde la N-1 en dirección Vitoria también se puede acceder tomando la salida 371 hacia Dallo, y desde ahí, por la A-3140 hacia Alegría, atravesando el pequeño monte, bajo el cual pasa el túnel del ferrocarril, y que penetra en la villa desde el Este.

Alegría de Álava se asienta sobre la primitiva aldea de Dulantzi, de ahí el doble nombre, que ya aparece en el documento de la Reja con la denominación de *Dullanzi*, pagando dos rejas en el Alfoz de Hiraszaiza. En la carta del obispo Jerónimo Aznar se cita como *Dulanzi*. Fue un núcleo que atrajo a los habitantes de las aldeas cercanas, como Ayala, Henayo o Eguileta, entre otras, en un poblamiento que propició la obtención del fuero de villazgo en 1337 de mano de Alfonso XI, siéndole otorgado también el derecho de mercado *salvo y seguro* el lunes de cada semana. La villa se configuró en la ladera de una colina, cuya base quedaba rodeada por el río Alegría, y estratégicamente situada, al dominar el paso que conducía desde San Adrián hacia Vitoria, incluyendo el Camino de Santiago; el que iba por Gamboa hacia Bizkaia y Gipuzkoa; y el que conducía hacia el Sur, a La Rioja, por la Montaña Alavesa. En lo alto de esta colina se situaron la plaza, la iglesia y la torre de los Lazcanos, adosada al templo, y hoy desaparecida, pero que fue una de las fortalezas más importantes de la Llanada. Paralelas al río se trazaron dos calles: la de la Fortaleza, en la parte superior, y la Calle Mayor, algo más abajo, que aún hoy vertebran el casco histórico bajomedieval.

La villa contó con varias ermitas en los alrededores, algunas antiguas parroquias de los mor-

zuten, serorategi gisa, baina komentu moduan jardun zuen 1615etik aurrera. Gaur egungo elizaren eraikina XVII. mendekoa da, baina lehen eraikinetik gorde da Errenazimentu garaiko galeria bat, zutabe ildaskatu eta guzti.

tuorios cercanos, como Santa María de Ayala o San Miguel de Henayo. Es importante también el convento de las Clarisas, fundado en 1581 como beaterio, pero que funciona como convento desde 1615. La construcción de su iglesia actual es del siglo XVII, pero se conserva del primer edificio una galería renacentista con columnas acanaladas.

San Blas eliza / Iglesia de San Blas

DULANTZIKO PARROKIA-eliza XV. mende amaierako eta XVI. mende hasierako eraikina da, gurutze latindarrreko oinplano eta erdigune zabalekoa. Tertzelete eta izardun gangek estalita dago eraikina, erdigunean giltza apainduak dituela. Eliza horretan nabarmentzekoa da dorrea. XVIII. mendearen amaieran eraiki zuten, estilo neoklasikoan. Lautadako lirain eta ederrenetarikoa da, eta hiribilduaren ikur argia.

Erromaniko garaitik, hegoaldeko harresiaren kanpoaldean gorde dira eraikin zaharraren harresiaren zatiak, bai eta 1804. urtean zerratu zituzten erdi-puntuko bi baoak ere. Aurretik eliza erromanikoak egon zirela erakusten du, bai Dulantzin, Alegría hiria horren gainean eraiki eta jendeztatu baino lehen, zein berak erakarrita biztanlerik gabe geratu zirenetan: Aiaran, Henayon, Larraran, Holgan, Larratzan. Haietatik Andre Maria Aiarakoa izeneko baseliza baino ez da geratzen, Andre Mariaren irudi ederrari dioten debozioaren ondorioz.

Testua: REA.

LA IGLESIA PARROQUIAL de Alegría es un edificio de finales del siglo XV y comienzos del XVI, de planta de cruz latina con amplio tramo central. La construcción se cubre con bóvedas con terceletes y estrelladas, con claves decoradas en el espacio central. Destaca de esta iglesia su torre, levantada a finales del siglo XVIII, en estilo neoclásico, una de las más esbeltas y bellas de la Llanada y símbolo inequívoco de la villa.

De época románica tan solo se conservan, en el exterior del muro sur, los restos del muro de la primitiva construcción, además de dos vanos de medio punto que fueron tapiados en 1804. Es una muestra de la existencia previa de iglesias románicas tanto en la aldea de Dulanz, antes de la repoblación al fundarse sobre ella la villa de Alegría, como en las que se despoblaron atraídas por ella: Ayala, Henayo, Larrara, Holga, Larraza. De aquellas, sólo ha sobrevivido la singular ermita de Nuestra Señora de Ayala, debido a la devoción hacia su bella imagen mariana.

Texto: REA

Aiarako Andre Maria baseliza Ermita de Nuestra Señora de Ayala

AIARAKO SANTUTEGIA ere esaten zaio. Dulantzi erdигunetik kilometro batera dago, trenbidearen beste aldean. Oinez ere joan daiteke, Dulantzi iparraldean dagoen tren-geltokitik; pasabide garaitik aurrera eginda, errepeidea hartu eta baselizara iristen da. Autoz joanez gero, berriz, Dulantziren ekialdetik irten behar da bidegurutzeraino, beti Gasteizerako hartuta, N-I autobia zehar, eta gero, A-3140 bideari jarraituz. Trenbidea zeharkatu ondoren, seinalerik ez duen irteera bat dago, eta handik Aiarara iristen da landa-errepeide batetik zehar. Aiarako baseliza da garai bateko, Rejako dokumentuan

TAMBIÉN DENOMINADA Santuario de Ayala, es una ermita situada a un kilómetro del centro de Alegría, al otro lado de la vía del tren. Se puede acceder andando desde la estación del ferrocarril, en la zona norte de Alegría, por un paso elevado que conduce a una carretera hasta la misma puerta de la ermita. En coche hay que salir de Alegría por el Este hasta una bifurcación, tomando siempre la carretera que indica dirección Vitoria por la autovía N-I, siguiendo la A-3140; tras pasar sobre la vía del tren, hay una salida sin señalizar que lleva a Ayala por una carretera agrícola. La ermita de Ayala es en realidad



Ikuspegia begoaldetik

Vista desde el lado sur



Ikuspegia ekialdetik

Vista desde el lado este

Aialba izenpean azaltzen zen herrixka zahar hartatik zutik dirauen bakarra. Agiri hartan diotenez, bi golde-burdina ordaindu ohi zizkioten Donemiliagako monasterioari. 1066. urtean, bestalde, Aiara abizenetan azaltzen zaigu; kapare batek, *Gundisalvo Didaz de Aialla* izenekoak emaitza bat egin omen zion-eta Leireko monasterioari. Ez omen da azaltzen berorren izena Aiara eskualdeko izen bereko leinuetan; ez, behintzat, Lautadakoetan. Aiaratik pasatzen zen Ezkerekotxatik zetorren Donejakue Bidea, eta handik Gipuzkoarantz jaisten zen San Adriandik behera. Baseliza horretatik Gasteizerantz zihuan, eta bidean bazen, adibidez, Arraraingo San Joanen baseliza.


Eraikin erromanikoa erabat gorde da. Harlanduxkaz egina, nabe longitudinala dauka, presbiterio artez eta absida erdizirkularrekin. Absidea antzeko burualdeko beste eliza batzuetakoa bezalakoa da: Alaitza, Gazeo, Argandoña, Trokoniz eta Arraraingoa bezalakoa, besteak beste; XIII. mende amaierako eraikuntza da, beraz. Labe-ganga batek estalita dago; tenpluaren gainerakoa, berriz, kanoi-ganga zorrotz batek estalita. Absideko arkuari bi zutaberdiak eusten diote. Oso kapitel simpleak dituzte zutabeok; landare-irudiak, angeluetan pinaburuak dituztela eta txanodun bola bat, gune zentralean. Antzeko gauza gertatzen zaio garai-pen-arkuari ere: kapitelak zerra-hortzko inposta baten azpian daude jarrita, motibo bera buru osoaren inguruan baitoa. Bolen ordez, baina, giza aurpegiak ageri dira eta, pinaburuen ordez, kiribildurak. Eskuinaldeko harroina, nabek hasita, txirlaz dago apainduta, eta ezkerraldeko pinaburuz eta zerra-horztun lerro batez fustearen oinarrian. Nabea burualdea baino garaiagoa da, eta bertako gainerako arkuak harresira itsatsitako pilastren gainean daude jarrita, apaindurak gabe.

Absidean, erdialdean eta eskuinaldean, erdi-puntuko bi leihoa txaranbeldu daude, zerra-hortzez apaindutako deskarga-arku batek inguraturik. Presbiterioaren hegoko partean beste bao bat ireki da, bi arkibolta zorrotzekin eta ertz bizian ebakiak. Landare irudiko kapitelek eta oinarri poligonalek eusten diente, apaindurak gabe, egikera gotikoarekin. Presbiterioaren bi harresietan albo-mahaitxo bana dago irekita. Arku zorrotzeoak dira eta, leihok bezala, zerra-horztun deskarga-arku batek inguratuta daude. Hastialean beste bi bao daude: gorengoa karratua da, eta beherengoa, erdi-puntuko gezi-leihoa txaranbeldua. Hegoaldeko horman, atariaren gainean, hiru gezi-leihoa daude. Bitxikeria gisa, nabarmentzekoa da nabeko hiru ataletan harri irtenak dituzten modiloien ilarak daudela; hiru ilara. Batzuen iritziz, baliteke sasoi batean zurezko tarima bat eusteko izatea, edota, erromesaldien garaian, erromesei ostatu emateko tribunei eusteko. Eraikin guztiaren bueltan, hormaren erdialdean, gorriz pintatutako disko-segida bat

la única construcción que perdura de la aldea despoblada de Ayala, que aparece en el documento de "La Reja" con el nombre de *Aialba* pagando dos rejas de hierro al Monasterio de San Millán. También en 1066 aparece Ayala como apellido en un testigo de una donación a Leire, el noble *Gundisalvo Didaz de Aialla*, que no aparece en los linajes homónimos del valle de Ayala, por lo que se refiere al Ayala de la Llanada. Por Ayala pasaba el Camino de Santiago procedente de Ezkerekotxa, que a su vez descendía desde Guipúzcoa por el paso de San Adrián, y continuaba tras esta ermita hacia Vitoria, visitando también lugares como la cercana ermita de San Juan de Arrarain.


Se conserva la construcción románica íntegra, realizada en sillarejo, compuesta por una nave longitudinal, con tramo recto del presbiterio y ábside semicircular. El ábside se incluye en el grupo de iglesias de cabecera similar, como Alaitza, Gazeo, Argandoña, Trokoniz o Arrarain, que sitúan la construcción ya avanzado el siglo XIII. Se cubre con bóveda de horno, mientras que el resto del templo lo hace con bóveda de cañón apuntado. El arco del ábside apea sobre dos semicolumnas con capiteles muy simples, vegetales con piñas en los ángulos y bola con caperuza en el espacio central. Algo similar sucede con el arco triunfal, cuyos capiteles, colocados bajo una imposta con dientes de sierra que se une a la que recorre toda la cabecera, sustituyen las bolas por caras humanas, y las piñas por volutas. La basa derecha, desde la nave, está adornada con veneras, y la izquierda con piñas y una fina línea de dientes de sierra en la base del fuste. El resto de los arcos de la nave, que es algo más alta que la cabecera, se apoyan en pilastras adosadas al muro, sin decoración.


En el ábside, en el centro y a la derecha, se abren dos ventanas abocinadas de medio punto, enmarcadas por un sobrearco con decoración de dientes de sierra. En el lado sur del presbiterio se abre otro vano, con dos arquivoltas apuntadas y cortadas en arista viva, apoyadas en capiteles vegetales y en basas poligonales sin decoración, ya de factura gótica. En los dos muros del presbiterio se abren sendos nichos, a modo de credencias, de arco apuntado, y enmarcados, como las ventanas, por un sobrearco con dientes de sierra. En el hastial se ven otros dos vanos, el superior cuadrado, y el inferior como una saetera abocinada de medio punto. En el muro sur, sobre el pórtico, también se abren tres aspilleras. Como curiosidad cabe decir que los tres tramos de la nave presentan tres filas de modillones de piedra muy salientes. Se ha especulado con que pudieran ser los apoyos en los que se sustentaría una tarima de madera o de tribunas que en época de peregrinación habrían servido para acomodar a los peregrinos. A lo largo de toda la construcción, a media altura del muro,



Oinplanoa / Planta

Hegoaldeko altxaera / Alzado sur





Ebaketa luzetara / Sección longitudinal

ageri da, gurutze handi batzuk barruan. Baseliza sagaratuta zegoen seinale.

Kanpoko aldean, berriz, hegolaldeko hormari itsatsita dago eliz ataria. Erentxun, Monasterioguren, Alaitza eta Okarizkoekin batera, Araban erromanikotik gorde diren adibide bakanetako bat. Eremu angeluzuzena da, eta hiru arku ditu irekirkik hegoalderantz; ezkerrekoa eta erdikoa zorrotzak dira, erdikoa estuagoa bestea baino; eta eskuin-nekoa, ostera, erdi-puntuko. Erdiko arkua aldeetara, baita ezkerrekoaren ezkerretara ere, hiru zutaberdi daude, arkua altueran ebakita, hormari sendotasuna emateko. Kapitel apainduko zutabe multzoek eusten diente atari horietako arkuei. Zutabe nagusi batek eta alboetako zutabe estuagoek osatutako multzoak dira. Eskualdeko erdi-puntuko arkua multzokoek irudi hauek dituzte kapiteletan: erdikoan munstro bat ageri da, ahotik zurtoinak ateratzen zaizkio eta zurtoin horien punta palma itxurako hostoak. Zutabe estuagoen kapiteletan, berriz, kiribildurak daude irudikatuta, hostoak zintzilik dituztela. Ezkerreko arkua multzoan, hosto zapalak erdiko kapitelean, eta kiribil leunak alboetan. Beste bi arkuetan, arku zorrotzean, antzeko apaingurra dago: tenpluaren oinetik hurbil dagoen arkuan, hosto haragitsuen irudiak ageri dira, eta hosto bitarteetan animalien buruak, mihiak kanpoan du-

se aprecia una serie de discos pintados en color rojizo, con grandes cruces, que dejan constancia de la consagración de la ermita.

En el exterior, adosado al muro sur, se encuentra el pórtico, uno de los pocos ejemplos románicos conservados en Álava, junto con el de Erentxun, Monasterioguren o los de Alaitza y Okariz. Se trata de un espacio rectangular en el que se abren tres arcos hacia el Sur, el izquierdo y el central apuntados, con el central más estrecho, y de medio punto el derecho. Flanqueando el arco central, y también a la izquierda del arco izquierdo, se aprecia tres semicolumnas, cortadas a la altura del arco, que sirven de refuerzo del muro. Los arcos de este pórtico se apoyan en conjuntos de columna principal y columnillas más estrechas a los lados, con capiteles decorados. Los del arco de medio punto, a la derecha, presentan, el principal, un monstruo de cuya boca emergen tallos que confluyen en hojas con forma de palmetas, y los secundarios volutas con hojas pendientes; y a la izquierda, hojas planas extendidas en el capitel central, y espirales poco marcadas en los laterales. En los dos arcos apuntados la decoración es similar: en el más cercano a los pies del templo se ven hojas carnosas vueltas, con cabezas de animales sacando la lengua en los espacios intermedios. Esta decoración tan naturalista indica que el



Absideko barbaruak / Canecillos del ábside

tela. Apaindura naturalistak agerian uzten du elizpea XIII. mendean eraikia, baseliza bera bezala, baina berori baino geroxeago, forma gotiko batzuk ere ageri dira eta. Elizpearen buru aldean badago arku zorrotz bat kanpora irekita. Egurrezko teilatu inklinatu batek estaltzen du.

Elizpearen barruan dugu portada dotore askoa. Hegoaldeko hormaren aurretik harlanduzko aparailu batez dago jarrita, plinto baten gainean altxatuta, hiru harmaileen ondotik. Zistertarren egikeraren barruan dagoela esan dezakegu, Donejakue Bidearen bitartez Lautadan zabal-dutako joera izan baitzen. Portada soila da, bost arkibolta zorrotzekin: barrutik kanpora, lehenengoa, hirugarrena eta bosgarrena baketoidunak dira; bigarrenak eta laugarrenak, osterak, moldura konbexua daukate xake irudiko zerrendaz apaindua. Apaingarri horixe bera ageri da baita deskarga-arkuan eta inpostan ere. Kapiteletan, landare irudi ebakidunak, fuste leunak eta harroinak apaindurarik gabeak, denak ere zerra-hortzez apaindutako plinto baten gainera datozi.

Elizpe zabalean badira hainbat aztarna erromániko: kapiteletako irudietan, landareak eta aurpegia, bitartean; zutabeetako fustea, eta xake motiboz apaindutako arku zatiak, kasurako.

Buruan diren bi leihu txaranbelduak, barrua deskribatzerakoan zehaztu ditugun horiek, deskarga-arku batek

pórtico se construyó en el siglo XIII, como la ermita, pero en una fase posterior a ésta, por lo que ya acusa formas góticas. En el lado de los pies del pórtico también hay un arco apuntado abierto al exterior. Este espacio se cubre con un tejado inclinado, de estructura de madera.

El pórtico acoge la elegante portada, que se adelanta sobre el muro sur mediante un aparejo de sillar y está elevada sobre un plinto ante tres peldaños. Se encuadra dentro de la corriente cisterciense que recorrió esta parte de la Llanada, siguiendo la Ruta Jacobea. Es una portada sobria compuesta por cinco arquivoltas apuntadas, de dentro afuera, la primera, tercera y quinta baquetonadas, y la segunda y la cuarta de moldura convexa flanqueada por franjas de ajedrezado, motivo decorativo que se repite en el sobrearco y en la imposta. Los capiteles son vegetales y someramente incisos, los fustes lisos y las basas sin decoración, reposando todo ello sobre el plinto con una línea decorativa de dientes de sierra.

En el amplio espacio del pórtico se hallan expuestos diversos restos románicos, como son capiteles vegetales con caras en los espacios, fustes de columna, o trozos de arco con ajedrezado.


En la cabecera, las dos ventanas abocinadas, descritas anteriormente en el espacio interior, se decoran hacia el





Elizpeko kapitela

Capitel del pórtico



Portada


Portada

apaintzen ditu kanpotik. Txanodun bolak ditu apaingarri arku horrek. Presbiterioko leihoa gotikoa kanporantz irekian, hiru arkibolta zorrotza eta deskarga-arku bat ageri dira, baketoia eta moldura txandaka dituztela. Inposta fin baten gainera dator, eta hiru pare zutabe, alde bakoitzean. Horien kapitelek ere tradizio erromanikoari jarraituz daude apainduta. Eskuineko kapiteletan, barrutik kanpora, hiru aurpegi ageri dira kapitel berean –erdikoan eta ezkerrekoan, emakume-aurpegia, txano eta kokospeko uhal eta guzti. Eskuinekoan, gizonezkoa, ilea kopetan–. Erdiko kapitelean, hosto bertikal naturalistak, eta kanpokoan, berriz ere emakumezko baten burua, kokospeko uhal eta guzti. Amaitzeko, ezkerraldean, barruko kapitelean, dama batzen irudia ageri da, txano-uhlal eta guzti, eta alboetan uhin formako marrazkiak; erdiko kapitelean, gizonezko baten burua, ile luzanga, kopeta gainean ere ilea, eta hosto naturalistak alboetan; kanpoaldeko kapitelean, hosto biribildu bertikalak. Harroinak poligonal eta gotikoak dira, eliza barruan direnak bezalakoak.

Aiarako baselizak du Lautada osoko harburu multzorik ederrena. Teilatu-hegalaren azpian daude. Hori bai, apainduta, absideoak eta presbiterioaren hegoaldekoak baino ez daude apainduta, hau da, fatxada nagusikoak, bertatik zohoalako Ezkerekotxatik zetorren Donejakue Bidea. Gainerako harburuak lauak dira. Abside erditik hasita, eraikinaren aurrealderantz eginez gero, hauexek ikusiko ditugu: beso zabal eta kurbatuko guru-tze grekodun diskoa, goian bi bolarekin; hortz zorrotzko piztia, disco edo harri bat ahoan duela; ezpain lodi eta sudur artezeko pertsonaia begi handia, adartxo birekin; iltze-burua, eta gune konbexuak; txanodun bola; ertzak eta oinarrian bola bat daukan harburua; harburu poligonal; beste iltze-buru bat, aurrekoaren antzekoa; bola laua; forma koniko, kurbatu eta iraulia; masail handiko burua, belarri txikiekin eta txano zapalarekin; ertza duen forma bat; txanodun bola bat –azken hiru horiek xake irudiko apaingarrien azpian dator–; eta forma biribil bat. Presbiterioaren zati artezean, berriz, beste sei harburu daude: lau ageragerian, eta beste bi teilituak apur bat ostenduta: txirla, Donejakue Bideari guztiz lotua; landare-irudia; anana; arrano naturalista; gizonezko bat gorputza erakusten; eta emakumezko loditxo bat, gorputza erakusten. Elizpearren teilitu gainean, bigarren harburuan ere, animalia belarri handi baten irudia ageri da. Iparraldeko horman, mende-baldeko hormarekin bat egiten duen lekuaren, giza maskara bat marraztuta; sudur zabala du eta ahoa irekita ageri da; eta atariak eta hastialak bat egiten duten angeluan, feli-do-buru bat ageri da, haserre antzean, hortz handiak eta mihiak kanpoan, eta ahoa hutsik. Berorren gainean, erlaitzko harlanduan, bi disco daude: batean zerra-hortzak

exterior con un sobrearco que acoge bolas con caperuza. La ventana gótica del presbiterio se abre hacia afuera con tres arquivoltas apuntadas y sobrearco, alternando baquetón con moldura, que descansan sobre una fina imposta y tres pares de columnas a cada lado, cuyos capiteles aparecen decorados con motivos de tradición románica. En los de la derecha y, de dentro afuera, se ven tres rostros en un mismo capitel –el central y el izquierdo de mujer con toca y barbuquejo, y el derecho de varón con flequillo–; el capitel intermedio muestra hojas verticales naturalistas; y el exterior, cabeza de dama con barbuquejo. En el lado izquierdo, en el capitel interior se aprecia la cabeza de otra dama con toca y barbuquejo, entre formas ondulantes que la flanquean; en el central, de nuevo cabeza de varón con media melena, flequillo y hojas naturalistas a los lados; y en el capitel exterior, hojas redondeadas verticales. Las basas son poligonales y góticas, como en el interior de la iglesia.

La ermita de Ayala conserva uno de los conjuntos de canecillos más bellos de esta zona de la Llanada. Se sitúan bajo el alero del tejado, pero sólo aparecen decorados los correspondientes al ábside y lado sur del presbiterio, es decir, la fachada principal, ya que era por ahí por donde pasaba el Camino de Santiago procedente de Ezkerekotxa. Los demás son lisos. Comenzando desde el centro del ábside y avanzando hacia el frente de la construcción se aprecian los siguientes: disco con cruz griega de brazos anchos y curvados, con dos bolas en los espacios superiores; fiera de grandes dientes, con disco o piedra entre sus fauces; personaje de ojos grandes, labios gruesos y nariz recta, con dos pequeños cuernos; cabeza de clavo, de espacios convexos; bola con caperuza; canecillo con aristas y bola en su base; canecillo poligonal; otra cabeza de clavo similar a la anterior; bola lisa; forma cónica curvada e invertida; cabeza de mofletes carnosos, pequeñas orejas y gorro plano; forma en arista; bola con caperuza –estos tres últimos bajo pieza con decoración de ajedrezados–; y forma redondeada. En el tramo recto del presbiterio hay seis más, cuatro bien visibles y otros dos algo ocultos por el tejado: venera, claramente relacionada con el Camino de Santiago; forma vegetal; piña; águila naturalista; personaje exhibicionista masculino; y exhibicionista femenino de cuerpo orondo. Sobre el tejado del pórtico, el segundo canecillo también está decorado con una forma animal de grandes orejas. En el muro norte, justo en la confluencia con el muro occidental, hay un can con una máscara humana, de nariz ancha y boca de hendidura; y en el ángulo sobre el pórtico con el hastial, se ve una cabeza de felino con expresión de fiereza, de grandes dientes y lengua, y boca muy abierta y vaciada. Sobre él, el sillar de la cornisa muestra dos discos, uno con decoración de dientes de



eta zirkulu zentrokideak dira apaingarri, eta bestean, lau petaloko ebakidura.

Hegoaldeko hormako leihoa txaranbeldua, arkibolta bidez ireki da kanpora. Ipostak bezala, arkiboltak ere bolak eta xake marrazkidun deskarga-arkua ditu. Horri eutsiz eta baoa osatzeko, landare-kapitelak dituzten zutabe bi, ebakidunak. Leihoa gaineko harlanduan, arkiboltaren azpian, beste ebakidura bat dago, felido irudiko harburuan ageri denaren antzekoa; kasu honetan, sei petaloko lore bat disco baten barruan.

Baselizaren barruan, eraikinaren oinetan, bataiarria dago. Kopa leuna du, zirkuluerdi leun bat ebakita aurrean behiko aldean, besterik ez. Oina baxua eta bakuna da, eta moldura ere halakoxea da. Atearen ondoan, zutabe-fuste bat dago. Gerora moldatutakoa dela ematen du, ur bedeinkatua gordetzeko moldatuta. Kapitel horrek txanodun bolak eta gizonzko baten irudia ditu kanpoko aldean. Beste aldean ez da apaindurarik igartzen, hormaren kontran doa eta.

Era berean, elizaren barruan, egurrezko baldakino baten gainean, Andre Mariaren, zaindariaren jatorrizko irudiaren kopia bat dago. Jatorrizkoa Dulantziko San Blas elizan dute urte osoan gordeta, eta zaindariaren egunean baino ez dute eramatzen Aiarara. XIV. mendeko irudia da, gotikoa, baina ezaugarri erromanikoekin. Arabako tenpluetan ageri diren amabirjinen eredukoa da hori ere: Andre Maria eserita, Jesus umea altzoan duela bedeinkapena ematen.

Aiarako Andre Mariaren baseliza da Lautadan eta Araba osoan ederrenetako eta ondoen gorde dena. Proporcion etora oreka handikoa, landa-eremuko erromanikotik eta zistertarren elementuetatik edana, baina ukitu gotiko naturalistikak ere jasoa. Izan ere, hiru korrontek bat egin zuten Arabako lurretan XIII. mendean.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: LGS

Bibliografía / Bibliografía

AZCÁRATE RISTORI, J. M., 1982, pp. 45-46; CASTRO, C. de, 1915, pp. 123-124, fig. 34-39; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 185-186; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, I, pp. 222-224; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 41-42, fig. 10-11, 129; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 60-62; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 868-870; PÉREZ DE ARRILUCEA, D., 1945; PLAZAOLA ARTOLA, J., 2002b, p. 158; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 159, 166-168, fig. 214-226; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 51, 55-57, 69; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 99-100.

sierra y círculos concéntricos, y el otro con una incisión de cuatro pétalos.

La ventana abocinada del muro de poniente se abre al exterior con una arquivolta decorada con bolas y sobrearcos ajedrezado, al igual que la imposta. Bajo ésta, un par de columnas con capiteles vegetales incisos completan la articulación del vano. En el sillar sobre el hueco de la ventana, bajo la arquivolta, se ve otra incisión similar a la existente sobre el canecillo del felino, en este caso un disco con una flor de seis pétalos.

Dentro de la ermita, en la zona de los pies, se encuentra la pila bautismal, de copa lisa, con una fina incisión semicircular en la parte inferior de la cara frontal. El pie es bajo y simple, con moldura lisa. Junto a la puerta hay un fuste de columna, posiblemente reaprovechado, que sujet a una aguabenditera acanalada posterior, con un capitel que se decora en sus ángulos exteriores con una bola con caperuza y una cara de varón. Los otros ángulos están colocados contra el muro y no se aprecia su decoración.

También en el interior, sobre un baldaquino de madera, se conserva una reproducción de la imagen original de la patrona de la construcción, Nuestra Señora. La original se custodia en la parroquia de San Blas de Alegria, y sólo baja a Ayala para la fiesta patronal. Es una imagen del siglo XIV, gótica, aunque con ciertos rasgos románicos, que forma parte del grupo de las "Andra Mari" alavesas: vírgenes sedentes con el Niño bendiciendo en el regazo.

La ermita de Nuestra Señora de Ayala es uno de los ejemplos más bellos y mejor conservados de la Llanada y de Álava, de gran proporción y equilibrio entre la tradición románica más rural, la elegancia de los elementos cistercienses y los nuevos aires góticos y naturalistas, tres corrientes que coexistieron en estas tierras durante el siglo XIII.

Texto y fotos: REA - Planos: LGS